

## **2021EKO UZTAILAREN 29AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**MODUA:** Presentzialki

**TOKIA:** Batzar aretoa

**EGUNA:** Hogeita bederatzia

**HILABETEA:** Uztaila.

**URTEA:** Bi mila eta hogeita bat.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko seiak eta erdi

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Bost (5)

**MAHAIBURUA:** Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

**BILDUAK:** Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

**IDAZKARIA:** ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

**1.- AURREKO AKTA.** Aurreko aktaren onespena. 2021-07-01.

Aktaren berri eman ondoren, ezagutzera eman da hizkuntza errefortzuarri eta Errekarteko lursaila saltzeari buruzko puntuetako bozketetan akatsak daudela, lehenengo kasuan gaizki islatu delako bilerara etorri ez zen zinegotzia eta bigarren kasuan, 6 zinegotzi azaltzen direlako 5 azaldu beharrean.

**2.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENA:**

**- USURBE ANTZOKIA ETA ERAKUSKETA ARETOA KUDEATZEKO ETA USTIATZEKO ZERBITZUA LUZATZEA.** 2018BOCU0001

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

**“AURREKARIAK:**

1. *Dagokion espedientea tramitatu ondoren, 2019ko uztailaren 18an, BEASAINGO UDALAK eta GOIKUS KUDEAKETA, S.L. enpresak Usurbe Antzokia eta erakusketa aretoa kudeatzeko eta ustiatzeko kontratu administratiboa sinatu zuten.*
2. *Kontratuaren egikaritze epea, **bi urtekoa da** kontratua sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kontratuaren arabera, beste urte batez luzatzeko ahalmena du Beasaingo Udalak.*
3. *Kontratua 2021eko uztailaren 17an bukatuko da, eta Kultura teknikariak 2021eko uztailaren 7an luzatzearen aldeko txostena egin du. GOIKUS KUDEAKETA, S.L. enpresari jakinarazi zitzaion kontratua luzatuko zaiola azkeneko jarraipen bileran.*
4. *Gobernu Batzordeak erabakia hartuko duen egunerako kontratuaren egikaritze epea iraungita egongo denez, idazkariak luzatzeari buruzko aurkako txostena idatzi du.*

5. *Herritarren batzordeak kontuan izanik luzapenak bi aldeen arteko espresuki hartutako erabakia eskatzen duela, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:*

Lehenik: 2019ko uztailaren 18an, BEASAINGO UDALAK eta GOIKUS KUDEAKETA, S.L. enpresak sinatutako kontratua luzatzea Usurbe Antzokia eta erakusketa aretoa kudeatzeko eta ustiatzeko.

Bigarrenik: Luzapena urtebetekoa izango da, 2021-07-18tik kontatzen hasita.

Hirugarrenik: Kontratuaren baldintza ekonomiko bera izango dira; hau da, 100.000,00 € + IVA (21.000,00 €).

Lauugarrenik: Alkateari baimena ematea kontratuaren luzapena sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Beasaingo EH Bilduko zinegotziak esan du abstenitu egingo dela, Idazkariak gai honi buruz egindako aurkako txostena dela eta.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin kontratu luzatzea erabaki da beste urte betez 2021-07-18tik kontatzen hasita. Epe hori iraungitakoan ez da beste luzapenik egiteko aukerarik izango.

#### KONTRATUA ESLEITZEA. GIZARTE ETA HEZKUNTZA-ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA. 2021BIBO0007

Ezagutzera eman da, Kontratazio Mahaiaren proposamena:

“1.- Kontratazio Mahaiaren 2021-07-8ko bileran ASOCIACIÓN LORRATZ GIZA ELKARTEA enpresa lizitatzailerak bakarrik lizitazioan parte hartzea onartu zitzaion.

2.- B kartazala (formula automatikoen bidez ebaluatuko ezin diren irizpideei dagokion dokumentazioa) gai horretan teknikoak diren bokalei pasatu zitzaizen aztertu eta ebaluatu ahal izateko.

3.- Txosten hori eginda, 2021-07-15ean egindako bileran edukiaren berri eman zen, eta Kontratazio Mahaiak oniritzia eman zion.

Lizitatzailerak atal horretan lortutako puntuazioa guztira, 44,5ekoa da.

Kontratazio-plataforman iragarri zen bezala, gaurko egunean 10,00etan, jendaurreko ekitaldian C artxibo elektronikoa ireki da: eskaintza ekonomikoa (2. eranskina,).

Lizitazio prezioa: 241.441,48 € + BEZ.

Lizitzaileak lortutako puntuazioa, 241.392,00 €koa da. Kasu honetan BEZ gabe salbuetsita dagoelako.

Eskaintza bakarra izanda eta lizitazio prezioa baino baxuagoa izanda, atal honetako aurreikusitako puntu guztiak lortu ditu, hau da. 50 puntu.

Horren ondorioz, lizitzaileak lortutako puntuazioa guztira: 94,5 puntu.

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari (Gobernu Batzordea) ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua, ASOCIACIÓN LORRATZ GIZA ELKARTEAri esleitzea, baldintza plegu administratibo eta teknikoen eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera.

Bigarren. Esleipen prezioa: 241.392,00 €/urteko

Hirugarren. Egikaritze epea: 2 urte eta urtebeteko beste bi luzapeneko aukera.

Lauugarren. Berme epea: 6 hilabete harrera egiten denetik kontatuta.

Bosgarren. Kontratuaren arduraduna, gizarte ongizate azpi arloko arduradun teknikoa izango da.

Seigarrena. Esleipendunari eskatzea hamar egun balioduneko epean, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, dokumentazio hau aurkez dezala:

- 24.139,2 €ko behin betiko fidantza.
- Erantzukizun zibileko poliza, 300.000,00 eurokoa.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, EJZn alta emanda.
- Fundazio eta Elkartearen Erregistroan Elkartearen inskribatuta egotearen agiria, Estatutuak eta ordezkariaren ahalmen agiria.
- BEZtik salbuetsita egotearen agiria.

Zazpigarrena. Fidantza aurkeztu ondoren, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako, Alkateari ahalmena emango zaio, eta, kontratazioko errekurtsio berezia aurkezteko epea igaro ondoren, dagokion administrazio-kontratua sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

### **3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

OBRA ZIURTAGIRIA: IGARTZA OLETA KALEAN ORIA IBAIAREN GAINEAN DAGOEN OINEZKOENTZAKO ESPALOIA ALDATZEKO OBREN LIKIDAZIOA. 2018PROB0006

Aho batez onartu da "Igartza Oleta kalean Oria ibaiaren gainean dagoen oinezkoentzako espaloia aldatzeko" obrei buruzko likidazioa, 157.973,70 €koa (BEZ barne).

OBRA ZIURTAGIRIA: DOLAREA PARKETA BIRMOLDATZEKO OBREI BURUZKOA HIRUGARRENGO ZIURTAGIRIA. 2019PROB0006

Aho batez onartu da "Dolarea parkea birmoldatzeko" obrei buruzko obren 3. ziurtagiria, 122.130,81 €koa (BEZ barne).

OBRA ZIURTAGIRIA: NAFARROA ETORBIDEA ETA ORIAMENDI KALEEN ARTEKO IGOGAILUAREN OBREI BURUZKOA BIGARRENGO ZIURTAGIRIA. 2020PROB0003

Aho batez onartu da "Nafarroa Etorbidea eta Oriamendi kalea artean igogailu publikoa instalatzeari eta berrurbanizatzearekiko" obrei buruzko obren 2. ziurtagiria, 23.726,04 €koa (BEZ barne).

OBRAK KONTRATATZEA. PROIEKTUA ETA PLEGUA ONARTZEA ETA DEIALDI PUBLIKOA EGITEA, ORIAMENDI KALEAN ETA ERAUSKIN PLAZAN URBANIZAZIO OBRAK EGITEKO. 2021PROB0001

Lurralde batzordearen proposamenaren berri eman da, aipatutako obrak kontratatzeko proiektua eta baldintza pleguak onartzea eta kontratazioa deialdi publiko irekiaren bidez egitea, ondorengo xehetasunekin:

- 1.- *Prozedura*: irekia publikitatearekin. Lizitazio elektronikoa.
- 2.- *Izapidetzea*: arrunta
- 3.- *Lizitazio prezioa*: 572.609,02 € BEZ gabe
- 4.- *Egikaritze epea*: 5 hilabete
- 5.- *Kaudimen ekonomiko, finantzarioa eta tekniko*: ondorengo klasifikazioa eskatzen da:

G taldea: 6 azpitaldea, 3. Kategoria

Horrezaz gain obra buruari ondorengo tituluak eskatzen zaizkio: Arkitektoa, arkitekto teknikoa, eraikuntzako ingeniari teknikoa edo goi mailako ingeniaria. %50etik gorako dedikazioa.

Obraren arduradunari berriz, Titulazio jakinik gabea. %100eko dedikazioa.

7.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: irailaren 6rarte. <a

8.- *Adjudikazio irizpideak*:

Balorazio automatikoa:

- Proposamen ekonomikoa: 60 puntu.
- Berme epea handitzea: 10 puntu.

Balorazio ez automatikoa:

Memoria teknikoa: 30 puntu.

9.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plika irekitzea kontratistatzailearen profileen argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

11.- *Kontratua gauzatzeko baldintza berezia, gizarte arlokoa:* *Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar direnean eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak plantillan emakumeen ordezkariak desorekatua duenean kontratuaren exekuzioari lotuta, enpresak, kontratua exekutatzeke eta exekuzio epe osoan zehar, gutxienez emakume langile berri bat kontratatu beharko du edo emakume baten aldi baterako kontratua mugagabe bihurtu beharko du. Plantilla desorekatutzat joko da, plantilla osoan emakumeak % 40tik behera badira.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldearen zinegotziak (Eva Alvarez Atanes andrea), esan du proiektuarekin ez daudelara ados, bidegorria kentzen delako, aparkalekuak luzatze aldera.

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV) jaunak ihardetsi dio esanez bidegorriak ez duela jarraipenik eta zerbitzua ematen diola bakarrik kale horretako bizilagunei. Aparkalekuen kasuan kalearen alde batekoak luzatu egiten dira eta bestaldekoen kasuan azalera handitzen da.

Horrezaz gai edukiontziena komentatzen da. Erauskinetako jaitsieran daudenak kentzen dira eta horiek kokapena banatu egiten da Oriamendi eta S. Inazio kalearen artean, Sasietak egindako proposamenaren arabera.

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Espedientean ez dago obra hori egiteak justifikatzen duen txosten teknikorik. Guk ere ez dugu ondo ikusten bidegorria kentzearena. Ezin dugu onartu orain dela gutxi egindako obra bat atzera botatzea. Dirua horrela gastatzea ez zaigu ondo iruditzen.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Obra hori egitearen helburua ez da bidegorria kentzea. Kalea aurkitzen den egoerak eramaten gaitu obra egitea. Aparkalekuak estuak direla mugikortasun irizpideek esaten digute.”

Irisgarritasun arrazoiengatik jarriko diren baldosei buruz, Adur Ugartemendia Leunda zinegotziak esan du bi araudi ezberdin daudela eta erabaki dela Beasainen orain arte erabili den berdina erabiltzea.

Bozketa eginda, emaitza ondorengo izan da:

Aldeko botoak: 3 (EAJ)

Aurkako botoak: 2 (Beasaingo EH Bildu eta Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo erabakia onartu da:

Lehenik. Proiektua onartzea.

Bigarren. Baldintza plegu administratiboa onartzea.

Hirugarren. Lizitazioa Euskadiko plataforman argitaratuko da.

#### **4.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ondorengoak aipatu dira:

1. Dolarea parkeko obren materialak asteburuetan babesteko kontratistak hesiak jartzeko hartutako erabakia.

2.- Igartza Oletan obrak egitearen ondorioa bankuak kendu direla eta kexak daudela. Puntu honetan adierazi da bankuak kendu direla ibilbidea zabaloagoa izateko eta kendutako bankuak Kikara eta Dolarea artean jarri direla, baina gaia aztertuko dela saiakera egiteko eserlekuak jarri ahal izateko.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen, akta hau idatzi eta sinatu dut.